



Eman hegoak euskarari



Juan Marséren nobelaren teoria

Marséren egunerokoa irakurriz bere nobelak berriz irakurtzeko gogoia pizten da

JON KORTAZAR



2021eko martxoan, Juan Marsé nobelagile handiaren 'Notas para unas memorias que nunca escribiré' izenburupeko oroimen liburua plazaratu zenean, argitaletxeak lehen-lehenik azpimarratu zuen «ohar» deitu arren, autoreak argitaratzeko prestatuta utzi zituela testuak, bai 2004. urteko egunerokoa ('Diario del año 2004') eta bai hiru libreta txikitik idatzitako iruzkinak ere; eta bigarrenik esan zuen egileak batez ere politikariek in- esan dezagun dena, PPko politikariek in- mingaina gupida gabe erabili zuela eta iritziak kontzientzia arazorik gabe eta zuzen-zuzen azaldu zituela.

Juan Cruz kazetariak, adibidez, idatzi du Juan Marsék liburu honetan «arima biluzi» egin duela, eta bere «estilo basa eta erostezina» jarri duela. Gogoangarriak dira Aznarri buruz idatzitako hitzak: «Aznar es un político marrullero y mediocre». Pozoi bera erabili du Marsék garai-ko zenbait idazleri buruz uste zuena garbi uzteko. Bere burua ere ez du salbu utzi kritika andana horren erdian.

Beraz, hainbat arrazoiengatik da gomendagarria Juan Marséren eguneroko hau, eta arrazoi horien artean aipatzekoa da bere idazkera estilo ironikoaz eta aberatsaz gozatzeko moduko dela eta egunerokoa irakurriz bere nobelak berriz irakurtzeko gogoia pizten dela.

Horren guztiaren gainetik, baina, niri Juan Marsék, han eta

hemen, ohar bat eta ohar bi, liburuan ematen duen nobelaren ikuspegia interesatu zait. Trazu marra txikietan agertu zait obraren erdi-erdian egile katalanak nobelari buruz duen teoria nagusia.

Egia esateko, oso esanguratsua da nola deskribatu duen bere teknikaren bihotzean dagoen «aventi» teknika. Denok dakigu «aventiak» gerra ostean kaleko mutikoek asmatzen zizkieten historiak direla. Kontatzeko modu hori erabilita sortu ditu Marsék nobelarik gehienak, fikzioaren barnean fikzioari tokia emanez. Baina gauza bat da jakitea eta beste bat egileari berari hain maite duen kontatzeko moduz hitz egiten

irakurtzea. Luzea da aipua baina osorik emango dugu hemen: «'AVENTI'AK'. Haur 'aventi'aren aurkikuntza, kontakizun osoa elekatzen duen zelula bizia. Gerra osteko haurtzaroan batzarrean egiten ziren jokoen deskribapena. Eta haurtzaroari agurra. Garbi izan nuenean aventiaren eta kontakizunaren arteko lotura, garbi izan nuen nobela.

Nobelaren egitura konplexua kontatzen diren ekintzen egitasun objektiboaren ezintasunetik jaio da; ekintzak mutil kokorrek kontatzen dituzten aventietan oinarriturik daude eta ahoz kontatzen diren fikzioak besterik ez dira, zeinak zurrumurrus, auzoko esamesez, mutil gaizki jantzien kuadrillen asmakizunez, ametsez osaturiko fikzio nagusia eratzen duten eta nobela bera diren» (217).

Cervantesen bidean jarri izan balitz bezala, fikzioaren bidez eman du errealitate Marsék. Eta Oscar Wilde aipatuz ia gauza bera deskribatu du nobelagile katalanak literaturaren helburuaz: «Literaturan plazer go-

rena da existitzen ez den horri errealitatea ematea» (61). Nahiz eta iritziak eraman duen kritikarien aurka erremuskadak bidaltzera: «Barregarria. Anna Caballé gisako kritikari eta ikerlari tuntunak orain konturatzen dira nobelaren osagaiak direla errealitatea eta fikzioa. Ordu onean!» (59).

Literaturari buruzko irizpide asko eta asko pelikula baterako idatzi zuen gidoia nobela bihurtzen duen momentukoak dira. Nobela 'Canciones de amor en Lolita's Club' izenpean argitaratu zuen. Baina Marsék garbi zuen gidoiaren eta nobelaren arteko desberdintasuna, batean eta bestean idazkerak behar zuen joera anitza eta horretaz hausnarketa asko ageri dira liburuan: tonuari buruz, nobelaren arnasa nola ez duen hartzen, zer nolako bideak jarraitzen dituen gidoia nobela bihurtzeko, esperientziak gidaturiko burutapen sotilak denak.

Juan Marséren eguneroko hau bere nortasuna ezagutzeko bide aparta da, baina beste horrenbeste eskaini du bere literatura ulertzeko orduan ere.

Gogoaren zaintza

JON MARTIN-ETXEBESTE

Oroimena bisitatzen den aldiro berreraikitzen da, eta bisitatu ezin diren oroitzapenak zimeldu egiten dira. «Lapurrak» sartu ziren Mikel Etxabururen amaren buruan eta haren gogoratzeko ahalmena suntsitu zuten. Liburu hau haren zaintza eta akonpainamenduaren kronika da, eta haren galera biziaren dolu prozesua. Gurasoen azken hilabeteen kudeaketa neketsua bistaratzen du eta gure jendartean hiltzen ez dakigula gogorazten digu. Keinuak hitzak baino baliotsuago bihurtzen diren fasean keinuak hitz bihurtzea erabaki zuen idazleak, amak bere semea ahalik eta beranduen ahanzt zezan; eta bere oinazea publiko egitea erabaki zuen. Zaintzearen eta 'zeintzearen' jolasa hiru ataletan banatua dago: 'Post-itak pareta zurian', 'Mara-mara' eta 'Zure lurraldean'.

Poemak xerra finetan ebaki

ditu, lehen irakurraldian gozatzeko moduko mokadu gordinetan. Eserialdi bakarrean irentsiko du liburua irakurleak ziurrenik. Zenbait poema beste idazle batzuen poemen berrinterpretazioak dira. Julio Cortazarri egindako keinuren bat topatu daiteke eta baita Rabindranath Tagoreren poema baten birkreazioa ere. Jatorrizkoaren persistentzia amaren berraurkikuntzaren bilaketa etsitu bilakatzen du Etxaburuk.

Egunerokotasuneko lipar intimoak partekatu ditu idazleak: «Arropak erantzi dizkizut, astiro,/ sagarra azalgabetzen./ Orbela zara pausatuta plastikozko aulkian». Kostaldeko herri txiki bateko paisaia deskribatzen da, etxe barrukoa, kanpoko munduarekin duen lotura bakarra balkoia delarik: «Eder ernatzen dira loreak zure balkoian/ astiro, zarata barik/ ondo gordetako sekretuak golkoan». Amaren espazioa gero eta murriztagoa da, bere kapulutasunera itzultzen den lorea bezala. Aldi berean, ordea, semearen barne mundua loratzen sumatzen da, zaurgarritasunean gero eta ederrago.



AHAZTU BAINO LEHEN, AMA
MIKEL ETXABURU
Pamiela. 96 orr.
13 euro

LABUR LABUR

Azkena Rock Festival-ek kartela aurkeztu du

EL CORREO

Azkena Rock Festival Gasteizko jaialdia ekainaren 16, 17 eta 18an ospatuko da Mendizabalán, bi urteko geldialdi behartuaren ondoren.

Antolatzaileek iragarrita zuten dagoeneko rockaren hainbat izen handi Gasteizen egongo direla, hala nola Patti Smith, The Offspring, Emmylou Harris, Social Distortion eta Suzi Quatro. Aste honetan, ordea, jaialdiaren kartela zabaldu dute, izen hauekin, besteak beste: The Afghan Whigs, Jerry Cantrell -Alice in Chainseko kidea-, Hiss Golden Messenger, Michael Monroe, Life Of Agony, Mad Sin, Ilegales, Morgan eta Soziedad Alkoholika, Delirium Tremens, Vulk, Joseba Iraizoki eta Lagunak eta Nukore euskal herrietarrak.

Alde negatiboan, antolatzaileek be-



Outgravity taldea, Azkena-n.

rretsi dute azkenean ez direla jaialdian egongo L7, Reverend Horton Heat, The Marcus King Band eta Shooter Jennings.

Sarrerak salgai daude dagoeneko 45 euroko (ostegunerako) eta 65 euroko (ostiralerako eta larunbaterako) prezioetan.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 Miñan

Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

2 Eraikuntzarako materiala

Eider Rodriguez. Susa

3 Nola gorde errautsa kolkoan

Miren Agur Meabe. Susa

4 Riomundo

Jon Maia. Txalaparta

EZ FIKZIOA

1 Mandamentu hipermodernoak

Iñigo Martinez. Elkar

2 Kontrako eztrittik

Uxue Alberdi. Susa

3 Txori Urdinak

Zigor Olabarria. Argia

4 Euskal herriko leiendak

T. Martinez de Lezea/J. L. Landa. Erein